



# Udaberriko lehen jaiak badatoz: Asteasu eta Orexako santakruzak

**OREXA** ▶ Gaur hasiko dira oilarraren jaitsierarekin eta astearterarte luzatuko dira

**EGITARAUA** ▶ Haur jolasak, kontzertuak, DJ Bull, bertsolariak, apustua...

**ASTEASU** ▶ Elizmendi auzoan bihar eta etzi ospatuko dituzte jaiak ▶ 6

JAIONE ASTIBIA



## Bi langile zauritu dira luma bat gainera erorita

**LEITZA** ▶ Lan istripua atzo goizean izan zen eraikuntza lan batean; langile bat oso larri zegoen ▶ 7

TOLOSA ▶

## V. Literatur Astea egin dute Samaniegon

Partaidetzarekin «pozarren» dira ▶ 2

ZIZURKIL ▶

## Andatza Eguna etzi izango da

Usurbilgo Udalarekin batera antolatzen du urtero Udalak festa herrikoia ▶ 4

TOLOSA ▶

## Aurrezki arrunta %3,6 gehitu du Tolosako Udalak 2004 urtean, 4.826.520 eurora iritsiz

«Inbertsio berriei aurre egiteko aukera» da, autofinantzaketa handitu delako ▶ 3

HEZKUNTZA ▶

# Literaturari bidea emanez

V. Literatur Astea egin berri dute Samaniego ikastetxeak, eta «pozarren» dira ekimenak izan duen erantzunarekin, gero eta jende gehiago inplikatzeko ari baita



Samaniego ikastetxeko ikasleetako baten ama, ikastetxean haurrei ipuin bat irakurtzen, V. Literatur Astearen harira. HITZA

## IRATXE ETXEBESTE

«Aurreko ikasturteotan bezala, apirilaren 23an izan zen Liburu Egunaren harira Literatur Astea antolatuta gure ikastetxean hilaren 18a eta 22a bitartean, ikasturtean zehar irakurzaletasuna bultzatzeko egiten ditugun ekimenen bilgune gisa». Horixe adierazi dute Samaniego ikastetxeko arduradunek. Eta horren baitan, *Marigorringo zazpittita* kanpainaren burutu dute, besteak beste.

«Ikasleek liburu bat irakurtzen dutenean gometsa bat eranstean dute liburutegian dagoen marigorringo erraldoian eta fitxa bat betetzen dute. Irakurritako liburu kopuruaren arabera, dominak banatzen dira aste horretan —urrezkoak, zilarrezkoak eta brontzezkoak—, eta Felix Maria Samaniego zenaren argazkia eta sinadura daramatzaten liburu markatzaileak banatzen dizkiegu ikasle guztiei; hala domina lortu dutenei nola lortu ez dutenei». *Maita nazazu* da ekimenaren leloa.

Eta, ekimen horren baitan idazleen bisitak izaten dituzte-



Jabier Muguruza, Samaniegoko lehen mailako ikasleekin. HITZA

la jakinarazi dute Samaniego ikastetxeko arduradunek. Jabier Muguruza eta Juan Kruz Igerabide izan dira ikasturte honetan ikasleekin solasean aritu direnak: Muguruza lehen mailakoekin, eta Igerabide hirugarren ziklokoekin, hain zuzen ere.

Samaniegokoek azalpenak eman dituzte, bestalde, Literatur Astea Nazioarteko Liburu Egunaren bueltan zergatik egiten duten, eta ez Haur Liburuaren Egunaren inguruan: «Haur Liburuaren Eguna oso gaizki

ikasturte honetan Literatur Astea, eta *On Kixote*-ren urteurrenarekin batera izan denez, liburu horren zati bat irakurri zuten O.N.C.E erakundeko kide batek ikasleen eta irakasleen aurrean Braillea erabiliz.

## Erantzunarekin, «pozarren»

«Oso pozik gaude ikasturte ikasturte Literatur Astearen jende gehiago inplikatzeko ari delako», esan dute Samaniego ikastetxeko ordezkariak: «Irakasleek, hezitzaileek eta ikasleek gain, iazko edizioan familiari inplikatzeko lortu genuen, eta aurten guraso gehiago animatu dira. Pixkanaka, partaidetza hori handitzea da gure asmoa, ea ohitura bihurtzen den».

Lehendabizikoz, praktiketan izan diren irakasleak ere animatu direla esan dute Samaniegokoek Literatur Astearen parte hartzea, eta «baita haien ikaskide batzuk ere». Horrez gain, Tolosako Haur Liburutegiko arduradunaren laguntza izan dute, ohiko moduan.

Baten eta bestearen partaidetza eskertzeko, oroigarri bana eman diete Samaniegokoek oparitan Literatur Astearekin bat egin duten guztiei: «Bertan, gure maskota Mantto azaltzen da liburu bat irakurtzen, eta ondoan du esker bertso bat». Literatur Asteak iraungo badu haien guztien laguntza beharrezkoa zaiela jakin badakite, izan ere.

## XEHETASUNAK ▶

### LITERATUR ASTEA

**Bosgarren aldia.** Literatur Astea antolatzen duten bosgarren aldia da aurtengoa eta hiru ekintzetan oinarritzen da:

- ▶ Liburu Egunari buruzko marrazkien erakusketa.
- ▶ Ipuinei buruzko ekimenak (kontaketak, antzerkiak...).
- ▶ Irakurketa maratoia.

**Hizkuntzak.** Literatur Astearen erabiliz dituzten hizkuntzei dagokienez, zera azaldu nahi izan dute Samaniegoko arduradunek:

- ▶ «Gure hizkuntza den euskararen normalizazioaren aldeko apustu eginez, ekintza gehienak euskara hutsean egin ditugu».
- ▶ Azken eguneko irakurketa maratoian «ahalik eta hizkuntza gehien erabiltzen saiatzen gara urtero, eta horretarako eskura dugun jendea inplikatzeko dugu». Literatur Astearen bosgarren edizioan euskara, ingelesa, gaztelania, Moore (Afrikako dialektoa; Burkina Fason hitz egiten dena), arabiera, frantsesa, Fang (Gineako dialektoa), portugesa, alemaniera, italiara, grekera, katalana, Braillea eta Zeinuen Hizkuntza entzun ahal izan dituzte ikasle eta irakasleek.

### MANTTO MASKOTA

**Itxuraz berrituta.** Ikasleek aski ondo ezagutzen dute Mantto maskota, eta Literatur Astearen 5. ediziorako itxuraz berrituta agertu da, hiru dimentsiotako papin erraldoi bihurtuta. Ikastetxeko pasiloan jarri dute, ikasleei Literatur Astearen barruan zeudela gogorarazteko. Hemendik aurrera eskolan egiten dituzten ekimenak girotzeko baliatuko dute maskota, eta horrekin lotutako zerbait eramango du Mantto soinean. «Oso harrera ona izan du maskota berrituta ikasleen aldetik».



Mantto maskota berrituta. HITZA

**MCSNBEAUTY**  
MAIATZEKO IGANDE  
GUZTIAK IREKITA  
Aldez aurreko hitzorduarekin.  
Orraztu eta makilatzeak  
Oria 16 - behea • TOLOSA  
Tel.: 943 65 58 37

EKONOMIA ▶

# Aurrezki arrunta %3,6 gehitu du Udalak 2004. urtean

«Autofinantzaketan maila handiarekin inbertsio berriei aurre egiteko aukera» du

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalaren aurrezki arrunta %3,61 gehitu zen 2004. urtean: zehazki, 4.826.520,55 eurokoa izatera iritsi zen, hau da, 2003ko ekitaldian izandakoa baino 168.181,75 euro gehiago. Udalaren hitzetan, «horrek agerian uzten du gauzaturiko kudeaketa ona, eta hori guztia inbertsio berriei aurre egiteko egun dugun autofinantzaketan handiagoan islatzen da».

Aurrezki arruntaren gehi-

kuntza hau gastu arrunten eta diru-sarreraren arteko diferentzian dago. «Honek guztiak argi azaltzen du Udalak ekonomi arloan gaur egun duen osasun bikaina, herenegun egindako osoko bilkuran 2004ko aurrekontuaren likidazioaren memoria aurkeztutakoan nabarmen geratu zen bezala».

Datozen urteetan autofinantzaketan maila hori antzeko terminoetan mantenduz gero, 2005-2007 epealdian inbertsio planen hein handi bat Tolosako udal-kutxak berak jarri ahal

izango duela nabarmendu zuen, hala, Udalak.

Jokin Azkue alkateorde eta Kontu, Ogasun eta Informazio Elkarteke Batzorde Bereziko zinegotziak beste datu bat azpimarratu zuen: Tolosan ematen ari den «inbertsio maila handia», Gipuzkoan ezaugarri berak dituzten beste udalerriekin alderatuz gero, hau «oso goitik» kokatuz. 10 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan pertsona bakoitzeko batezbesteko inbertsioa 191 eurokoa denean, Tolosan 232koa da.

Osoko bilkuran azalduetako kontuen arabera, 2004. urteko behin betiko aurrekontuan jasotzen ziren inbertsio errealean gauzatzeko maila «oso handia» izan da (11.289.523 eurokoa, hain zuzen ere), eta aurreko ekitaldikoa baino zerbait handiagoa.

Honenbestez, 2004ko abenduaren 31n aurreikusitako inbertsioen %83 «dagoeneko gauzatuak, gauzatzeko fasean edota esleituak» zeudela azaldu du Udalak: «Ehuneko hori handiagoa da gaur egun, zin-

tzilik edo kontratazio zain zeuden zenbait partida jada sartu direlako».

Gauzaturiko inbertsiorik garantzitsuenen artean hauek aipatu ditu Udalak: «Tolosa Lantzen S.A. elkarteari Usabal kiroldegia eraikitzeke eginiko 3.541.156 euroko ekarpena, Erretengibel elkarteari Toriles eraikina birgaitzeko emandako 300.000 euroak, eta bidegorria eraikitzeke eta beste zenbait irisgarritasun proiektu gauzatzeko egindako inbertsioa». Guztiek 640.000 euroko kopurua osatzen dute.

Hortaz, Tolosako Udalaren behin betiko aurrekontua 32.593.391,57 eurokoa izan zen joan den urtean, «batetik, 6.009.384,57 euroko kredituak sartzearen ondorioz; eta, bestetik, 2.020.007 euro osatzen zituen habilitazio eta kreditu gehigarriekin bestetik».

BATZARRA ▶

## Irazkiren hilabeteroko bilera, bihar

Irazki elkarte kulturantzak hilabeteroko batzarra egingo du bihar, 17:00etan, TEEren egoitzan. 2005eko proiektuen aurkezpena (irteerak, Magreb jardunaldiak, etorkinei arreta, topaketak...), bazkide berriei harrera (etorkinak eta hemengoak), logotipo berriaren hautaketa eta askaria egingo dituzte.

HITZALDIA ▶

## Euskara mintzagai izango dute gaur HHIn

Euskararen erabilera sustatu nahian, *Euskara bizia buru-bihotzean hitzaldia* antolatu dute gaur Tolosako Helduen Heziketan (HHI-EPA). Jose Ramon Zubimendi idazle eta Euskaltzainak eskainiko du solasaldia. 15:00etan hasiko da saioa, ikastetxearen egoitzan (Igaralde, 25).

MENDIA ▶

## Ernioko mendi lasterketarako izen-ematea

Aralarko Adiskideek zabaldu dute dagoeneko Ernioko mendi lasterketarako izen-emate epea. Interesa duenak bi eratara eman dezake izena: 943 69 74 13an—astegunez, 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara; eta 09:30etik 13:30era larunbatetan—, eta Tolosaldea Tour agentzian (Santa Maria).

HITZALDIA ▶

## Ebanjelioaren inguruan ariko dira Santa Marian

Florencio Torrelledo ETBko eta Euskadi Irratiko kazetariak *Hablar del Evangelio parruce que no esta de moda* izeneko hitzaldia eskainiko du gaur, Santa Mariako parrukieterako aretoan, 19:00etan. «Herritar guztiak solasaldira gonbidatuta» daudela gogoratu dute Santa Mariakoek.

HEZKUNTZA ▶

## Aurrematrikula epea zabaldu dute HHIn

2005-2006 ikasturterako aurrematrikula epea zabaldu berri dute Helduen Hezikuntza Iraunkorrean (Igaralde, 23.943 67 26 60). DBHko graduatua, 25 urtetik gorakoentzat unibertsitaterako sarre-za, hizkuntzak, egur taila eta etorkinentzako gaztelaniazko ikastaroak dira, besteak beste, eskaintzak.

MUSIKA ▶

# Hodeitruk Torreviejako Habanera Lehiaketan ariko da asteburuan

Antolakuntzak gonbidatu du abesbatza; Inauteri obrak eskainiko dituzte

LEIRE MONTES

Hodeitruk abesbatzako haurrek eta gaztetxoek asteburuan jokatu den Torreviejako (Alacant, Herrialde Katalanak) Habanera Lehiaketa ospetsuan parte hartuko dute. Hain zuzen ere, maiatzaren 1ean, igandean, eskainiko dute Tolosakoek beren emanaldia, 12:00etan.

*El abanico* obra behartuaz gain, Inauterietako errepertorioko piezetan oinarritutako obrak interpretatuko dituzte Hodeitruk abesbatzakoek:

besteak beste, *Inauteri habanera*, *El marinero rojo (Txintxin)* eta *Txistu-habanera* piezak oinarritzat hartuz David Azurzak egindako moldaketekin; azken obra instrumental hori ahotserako bertsoan eskainiko den lehen aldia izango da. *Zugana Manuela-Ikusi nuan* Tomas Garbizuren obra ere eskainiko dute, eta David Azurzaren *Suari kanta*, Ana Iparragirre pianoan bidelagun izango dutela.

Hodeitrukekoek badute eskarmenturik Torreviejako Habanera Lehiaketan: Gazte ko-

ruen modalitatean, Bergarako Gabero abesbatzarekin aritu ziren duela zenbait urte, eta lehenengo saria lortu zuten, gainera.

Orduan lortutako emaitzak eta arrakasta ikusiz, Hodeitruke antolakuntzak gonbidatuta hartuko du parte aurten haur abesbatzen modalitatean. Ospe eta maila handiko koruekin lehiatuko da: Gernikako Gaudeamus korala, Irungo Coro Infantil Ametsa, Gasteizko Coro Luis Dorado Unamuno, eta Errusiako Armonia abesbatza, besteak beste.



Hodeitruk abesbatzako haurrak eta gaztetxoak. HITZA

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Tolosa Herria Hedabideen elkartasuna KIEri eta Baigorriari

Espainiako Auzitegi Nazionalak, Egin argitaratzen zuten enpresen zorra ordainarazi nahi die Gara argitaratzen duen Baigorri editoreari eta egunkaria inprimatzen duen KIE inprimategiari. Hasteko, 440.000 euro ordaintzeko agindua ezarri dio KIEri Espainiako Auzitegi Nazionalak. Hori, astakeria judiciala izateaz gain, KIEko 21 langileren lanpostua eta inprimategiaren beraren etorkizuna kinka larrian jartzeko modu bat da. Gainera, Baigorrii beste lau milioi eurotik gora ordainarazi nahi dizkio Auzitegi Nazionalak.

TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZA egunkariaren argitaratzaile Tolosa Herria Hedabideen

tako kideok gogor salatu nahi dugu eraso hori. Adierazpen askatasunaren aurkako eraso arbuigarritzat jotzen dugu, izan ere, Espainiako Auzitegi Nazionalaren ebazpena. Ez da lehen aldia erakunde horrek Euskal Herriko komunikabideen baten kontra eraso jotzen duena. Lau dira, dagoeneko, itxi dituen komunikabideak: Egin egunkaria, Egin Irratia, Euskaldunon Egunkaria eta Ardi Beltza aldizkaria. Oraingoan ez dute ixteko agindurik eman, baina Gara ere ixteko modua aurkitu nahi dute, ekonomikoki itota oraingo honetan, bereak ez diren zor batzuk ordaintzera behartuz. Era horretara, Baigorri eta KIEk Euskal Herriko komunikazio arloari egiten dioten ekarpena zapuztu nahi dute.

Kontuan hartu behar da, gainera, TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZA egunkaria KIE inprimatzen dela (gainontzeko HITZAK bezala), eta alde horretatik ere kezka sortzen digu KIEri ordainarazi nahi dieten zorrak.

Prensa eta informazio esku-bideen kontrako erasoak onartezinak direla adierazi nahi dugu, eta Euskal Herriko komunikabideen kontrako jarduna ez dela oraindik eten, zoritxarrez. Gutxieneko babes guneak eta bideak garatzeko lanean urrats asko dauzkagu egiteko prest dauden eragile eta erakunde guztiarekin elkarlanean aritzeko gogoz gaude.

TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZA egunkaria

## Euskal Herria gorrira ekarri

Gure herria bere buruaren jabe izateko prozesua martxan dago. Eraikuntza politikoa eta soziala banaezinak dira prozesu honetan eta, hortaz, Euskal Herrian sumatzen dugun aldaketak prozesuak aldaketa sozial sakona bultzatzeko aukera ematen digu langileoi.

Maiatzaren Lehenean argi

diogu nahi dugun Euskal Herrian, egungo eredu sozial neoliberalak ez duela tokirik. Prekarietateari, babes sozialaren murrizketari, zerbitzu publikoen pribatizazioari, azpikontratazioari, lan baldintzen desregulazioari, diskriminazioari eta prestatzen ari diren lan erforma berriei ezetz esan eta tinko erantzun behar diogu. Langileriaaren protagonismoa funtsezkoa dugu Euskal Herri aske, justu eta solidarioa sortzeko.

Euskal langileriaaren interesetan oinarritutako burujabetza estrategia artikulatzea da gure konpromisoa. Jendarte eredu solidario, partaidetza, ondasunen banaketa justu eta eskubide sozialak bermatuak izan daitezkeen nahi dugu. Emakume eta gizonen arteko pareko harremanetan oinarritutako eredu nahi dugu. Ingarumena errespetatuko duen eredu nahi dugu. Burujabetza prozesu honetan eduki soziala da langileriaaren eskubideak babesteko berme nagusia.

Baina aldatetaz ez dira berez etortzen. Aldaketarako bide bakarra langileriaaren borroka da, konfrontazioa, patronalari eta botere politiko-ekonomikoari aurre egitea.

LAB indarrak bildu eta pizteko prest dago burujabetza prozesuan klase erronkari erantzuteko. Horixe da Euskal Herriaren nazio eraikuntzari ezkerretik egin behar diogun funtsezko ekarpena. Euskal Herria gorrira ekarri behar dugu!

Bai, borrokak merezi du, eta maiatzaren Lehen honetan LAB-ek Irufëa eta Baionan burutuko dituen manifestazioetan jendarte eredu justu eta solidario baten alde inoiz baino indartsuago parte hartzeko deia luzatzen die langileria eta herriar guztiei.

Gora Maiatzaren Lehena!!!  
Maiatzak 1ean denok Irufëra!!!

Gora Euskal Herriko langileria!!!

MARI MUJIKA (TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZA egunkaria)  
LAB-EN IZENEAN ▶ TOLOSA

ANOETA ▶

## Prestakuntza ikastaroak izango dira KZgunean

Mikroenpresetako profesionali daude zuzenduta eta maiatzean egingo dira

ERREDAKZIOA

Interneteko aplikazioen arloko prestakuntza ikastaroak antolatu ditu Anoetako KZguneak maiatzerako, batez ere mikroenpresetako profesionali zuzenduta. Guztiz doakoak dira ikastaroak eta zazpi izango dira egingo direnak. Lehenengo ikastaroa *Banka elektronikoa: kontu mugimenduak, intsuldaketak eta transferentziak interneten*, maiatzaren 4an izango da, 16:00etatik 18:00etara. Maiatzaren 5ean, ordutegi berdinean, *Banka elektronikoa: odainagiriaren helbideratzea, ordaintzetak eta kobrantzak interneten*. Beste ikastaroa maiatzaren 9an izango da, *Antolatu zure negozio agenda (egutegi, zereginak eta oharrak) posta elektronikoko tresnak erabiliz* izenarekin eta 18:00etatik 20:00etara izango da.

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

## Andatza Eguna etzi, ohiturekin jarraituz

Zizurkilgo eta Usurbilgo Udalek antolatzen dute egun hori; goizean izango du hitzordu nagusia festa herrikoikiak

ERREDAKZIOA

Aspaldiko ohiturari jarraituz, maiatzaren 1ean Andatza Eguna izango da. Andatza mendia Zizurkil eta Usurbilgo lurretan kokatua dagoenez, Andatza Eguneko antolaketa lanak ere bi herrien artean egiten dira.

562 metroko altuera duen mendi kuttunera igo nahi dutenek egun osoa izango dute, baina festak goizean izango du hitzordu nagusia. Goizeko hamaiketarako hamaiketakoak prest egongo da beheko txabolan. Bertan, salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria doan banatuko dira.

Hamabietan, herri-kirol eta jokoak izango dira haurrentzat eta helduentzat. Goizean zehar trikitixa doinurik ez da faltako, eta bertsolariak ere izango dira.

**Bazkalondoren ere, festa**

Bazkaria norberak ekartzea aurreikusten da, eta kafea eta



Herri kirolek bere lekua izango dute Andatza Egunean. HITZA

kopa bertan banatuko dira. Bazkalondoren ere festa girorik ez da faltako, antolatzaileek ziurtatzen dutenez.

Antolatzaileek jende guztia animatzen dute igandean Andatza joatera eta jai giroan egun egokia pasatzera.

IBARRA ▶

## Udalaren diru laguntzak euskara ikasten ari direnentzat

Eskaera-orria Euskara Zerbitzuan jaso daiteke maiatzaren 2aren ondoren

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak euskara ikasten ari diren herritarrei diru laguntzak emateko epea irekiko du maiatzaren 2an. 2004-2005eko ikasturtean euskara ikasten aritu direnentzako dira. Horretarako eskaera-orria jaso behar dute Euskara Zerbitzuan, ondo bete eta nortasun agiriaren fotokopiarekin batera leku berean entregatu uztailearen 29a baino lehen. Diru laguntza jasotzeko nahitaezkoa da Ibarrako errodan izen emanda egotea gutxienez sei hilabetean, ikastaro amaitu egin behar da eta %85eko asistentzia bermatu. Zenbatekoari dagokionez, ikasturte edo ikastaro bakoitzeko matrikularen %75 emango da. Barnetegia egin gero, kostu osoaren (matrikula gehi pentzioa, ez, ordea materiala) erdiaren %75.

ALDABA ▶ GIZARTEA

# Bihar ardoa dastatzeko ikastaroa

Elizondo tabernan 19:00etatik aurrera izango da; ondoren afaria egingo dute

NOELIA LATABURU

Ardoa edan. Ziur hori gehientzuenekin egin dutela. Baina nork daki benetan ardo ona eta txararen artean bereizten? Eta nork zeintzuk diren ardoa ondo dastatzeko pausoak eta aintzat hartu beharreko ezauzgarriak? Bada, sekretu hauen guztien berri izan nahi duten ardo edale eta ardozale guztiek hitzordua dute bihar Aldabako Elizondo tabernan.

«Bodega Tresaras-ekoekin egingen genuen kata ikastaro bat

izateko proposamena eta azkenik bihar gauzatuko dugun», adierazi du Ramon Emanalde Elizondo tabernakoak. Lehenik eta behin hitzaldi bat eskainiko dute bodegakoei 19:00etan hasiko dena; ondoren afaria izango da. Jendeak interes handia erakutsi du, izan ere «honez gero 35 lagun inguruk eman dute izena». Dena den, oraindik 3 pertsonentzako lekua dagoela jakinarazi dute, 30 euroren truke, eta denak «animadaitezela» eskatu dute Aldabako tabernakoek.

BALIARRAIN ▶ GIZARTEA

# Dena prest etzi egingo den txekor jaterako

14:00etan hasiko da Atari-Soro pilotalekuan herriko gazteek antolatu duten bazkaria



Atari-Soro pilotalekuan izango da aurten ere txekor-jatea. M. JAUREGI

N. LATABURU

Langilearen Nazioarteko Egunean egingo dute aurten Baliarrain urtez urte erroten txekor jatea. Duela hilabete inguru hasi ziren herriko gazteek bazkari honen prestaketa lanean.

14:00ak aldera bilduko dira bazkarirako izen eman duten guztiak Atari-Soro pilotale-

kuan. Bertan txekorra entsaldarekin eskainiko da, baina hau ez da bazkarian zerbitzatu den janari bakarria; aurretik txorizo egosia egongo da eta bizkotxo, kopa eta kafea ondoren. Hau guztia 20 euroren truke izango dute.


Aurreko urteetako arrakasta berdintzea edo hobetzea espero dute eta ehun lagunetik gora agertzea espero dute.



# Euskal jolasak jokoan sustatuz

EUSKAL SOIN JARDUERAK ▶ Bigarren urtez antolatu ditu Kutzak bailarako ikastolen arteko euskal soin jarduerak. Atzokoan Tolosako Triangulua gazteen arteko jolasgune bilakatu zen eta bertan igaro zuten goiza Anoetako, Jesusen Bihotza, Aralar eta Laskorain ikastoletako ikasleek «euskal jolas eta jokoan». Topaketa hauen helburuak herri kirolen bitartez euskal kultura gazteen artean ezagutzera ematea da, Eñaut Telleria

Ikaspilotako begiralearen esanetan. «Hasiera batean pilotaren sustapena bultzatzeko hasi ginen jarduera hauekin baina azkenean hau bururatu zitzaigun», adierazi dute. Emaitzekin ere pozik azaldu dira antolatzaileak, gazteek «kirol hauekiko grina erakusten baitute». Villabonako ikastolakoek irabazi zuten atzo eta euren saria maiatzaren 27an Zarautzen ospatuko duten Gipuzkoako hainbat bailararen arteko jaialdira joatea izango da. NOELIA LATABURU



# 50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN

Apirilaren 24tik aurrera

egunero ibilbide bat DOAN BERRIarekin



Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

JAIK ▶

# Santakruzak hasiko dira gaur eta bihar Orexan eta Asteasun

Gaur hasiko dira Orexan oilarraren jaitsierarekin eta astearta bitarte luzatuko dira; Asteasuko Elizmendi auzoan bihar eta etzi ospatuko dituzteko jaiak

INIGO TERRADILLOS

Santa Kruz jaiekin batera hasien dira udaberriko herrietako jaiak, beraz, orain hasi eta uda osoan zehar han eta hemen zer ospatua izaten da. Orexakoak dira lehendabizikoak, hemen gaur ekingo baitiete santakruzei. Oilarraren jaitsierarekin batera hasiko da festa herrian. Herriko armarrarian agertzen da oilarra eta hori da kanpandorretik udaletxeko balkoira oilarraren jaitsiera egiteraren arrazoia. Festetako ekitaldi garrantzitsuetako bat gaurko afaria izaten da, herri-tar gehienak biltzen baitira bertan lagunarteko giroan.

Bihar arratsaldean haurrentzako jolasak egingo dira. *Xur-din ipotxen munduan* jokoan, partxis moduko taula batekin proba desberdinak egin beharko dituzte herriko gaztetxoek. Gauean eta goizalderarte musika izango da Harrika, Kauta eta DJ Bullen eskutik.

Astearta ere egun berezia izango da. Eguerdian herriko Intxaurpe eta Elbarrene auzoen arteko apustua egingo da. Intxaurpek irabazi zuen pasa den urtean eta aurten errebantxa egingo da. Pilotan sokatiran eta herri kiroltan lehiatu beharko dira bi taldeak nor baino nor. Pintxo lehiaketak eta dastaketak emango diete amaiera aurtengo festei.

Asteasun, Elizmendi auzoan

ere ospatzen dituzte Santa Kruz jaiak. Pasa den urtean berreskuratu zituzten jaiak eta ilusio handiarekin ekingo diete aurtengoei iazko harrera ona ikusita. Simonen jaitsierak emango die hasiera jaiak; elizako Simonaldetik (gargola dagoen lekutik) pertsona edo panpin bat jaitsiz egingo da. Bihar eta etzi askotariko ekitaldiak izango dira eta amaiera Simonen igoerak emango dio.

Jai giroaz gozatzeko aukera izango da beraz gaurtik eta bihartik aurrera Orexan eta Asteasuko Elizmendi auzoan ospatzen diren santakruzetan.



laz Orexako Santa Kruz jaietan egindako herri bazkaria. D.GIBELALDE

## SANTA KRUZ JAIK ▶ EGITARAUA

### OREXA

Irureta Ontsalo-Oteizaren aurka.

**22:00.** Sagardo probaketa.  
**22:00.** Bertso saioa gai librean Xabier Amuriza eta Andoni Egañarekin.  
**Ondoren.** DJ Bull.

### GAUR

**20:30.** Oilar jaitsiera.  
**20:30.** Herri afaria.  
**Ondoren.** Erromeria Kupela taldearekin.

### BIHAR

**17:00.** Haur jolasak: *Xur-din ipotxen munduan*. Ondoren, haurren merienda.  
**24:00.** Kontzertua: Harrika eta Kauta taldeak.  
**Ondoren.** DJ Bull elkarteak. Musika amaitzean, goizaldera, baratuzurizopa jatea egingo da eta ondoren kalejira baseriz baserri Gari eta Iñakirekin.

### IGANDEA

**18:00.** Pilota partiduak: jubeniletan Iturriotz-Iriarte Mendiluze-Eskuderoren aurka eta afizionatuetan Renobales-

Mendiko Txirindularitza eta Krosa.

**15:30.** Mus txapelketa herrikoia.  
**16:00.** Txupinazioa eta Simonen jaitsiera.  
**Ondoren.** Haur jolasak.  
**21:00.** Herri afaria Erretore Etxean.  
**23:00.** Kupela taldearekin erromeria.  
**Goizaldera.** Zezensuzkoa.

### IGANDEA

**11:15.** Meza Santa Kruz ermitan.  
**Ondoren.** Hamaiketako. Toka txapelketa eta trikitixa Laja eta taldearekin.  
**18:00.** Herri kirolak Otaegi eta Igeritza aizkolariekin.  
Sokamuturra (zezen txikiak eta poney-ak).  
**Ondoren.** Laja eta taldea.  
**22:00.** Simonen igoera.  
**23:00.** Laja eta taldea goizalderarte.

### ASTELEHENA

**22:00.** Mus Txapelketa herrikoia.

### ASTEARTEA (SANTA KUTZ EGUNA)

**12:30.** Intxaurpe eta Elbarrene auzoen artean apustua: pilota partidua, herri kirolak, sokatira.  
**Ondoren.** Pintxo lehiaketa eta dastaketa elkarteak.

### ELIZMENDI AUZOA (ASTEASU)

### BIHAR

**11:00.** Duatloia. Probak:

ALEGIA ▶

## Seinale bertikalak egokituko dira

Diputatuen Kontseiluak onartu du lizitazioa ateratzea GI-2133 Ordizia-Alegia, Zaldibia, Abaltzisketa eta Amezetatik errepideko seinale bertikalak 8.1.-IC arauri egokitzeko lanak, eta epea hiru hilabetekoa izango da.

JAIK ▶

## Eskola Txikien III. Topaketak egingo dira gaur

Gaur 10:00etatik aurrera, Berazubi estadioan Eskola Txikien III. Topaketak egingo dira. Lizartza, Altzo, Ikaztegieta, Asteasu, Berrobi, Aduna, Albiztur, Bidegoian, Berastegi, Alkiza eta Zizurkilgo 8-12 urte bitarteko 160 ikasle elkartuko dira atletismo eta herri kirol proba ezberdinetan parte hartzeko.

GAZTELU ▶

## Zinema eta herri afaria asteburuan Kontzejun

Gaur 19:30ean *El jovencito Frankenstein* filma izango da ikusgai. Bihar 18:00etan askaria eta ondoren *Glup, superdetektibe* filma ikusiko ahalko dute txikiak. 21:30ean afaria eta amaitzean film laburrak eta zinema erotikoa izango da ikusgai.

BERASTEGI ▶

## Interneteko ikastaroak egiteko aukera

Internet ikastaroak antolatuko dira taldea osatzen bada. Izen emateko: 943 68 34 85 edo 943 68 33 38.

### Kontsu Taberna

festetako berezitasuna:  
Arkume pikatxa tortila  
Arkumea  
Herriko mamia  
festa onak pasa !!

OREXA • Tel.: 943682154

hitza **txokoa** lagunena

HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu

943 30 43 46  
(8:30 / 20:30)

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

Astebukaera honetan *Leidorren* emango den 'EL PENALTI MAS LARGO DEL MUNDO' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

JESUS MARI ORMAETXEA TELLETXEA HITZAren harpidedun laguntzaile alegiarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Bi langile zauritu dira lan istripuan

Eraikuntza lanetan ari zirelarik, garabi ponpa bat gainera erori zaie

JAIONE ASTIBIA

Atzo goizean, bi langile zaurituta gertatu ziren eraikuntzako lan istripu batean, Leitzan. Zauritua Iruñeko eritexera eraman zituzten, bertaratu ziren foruzainek adierazi zuten, «obran zuten, baina «zaurien larritasunaz ez dugu baloraziorik eskuartean» eman zioten jakitera HITZARI. Arratsalderako, bat behinik behin, buruan kolpea jaso zuena, larri zela zabaldu zen.

Istripua, Landa Behikoan, Areko Zubi aldera eraikitzen ari diren obretan gertatu zen, une hartan porlana ponpatzen

ari zen garabi ponparen beso artikulatua, junta batetik matxuratu eta lurrera erori zenean. Azpian lanean ari ziren bi langile harrapatu zituen.

Bertan zeuden lekuko atzo azaldu zuten, «obran soinu handi bat izan da eta berehala, karrasiak entzun dira, handiak». Ustez, buruan zaurituta suertatutako langilearenak omen ziren, ziotenez. Zauritutako langileak anbulantzia banatan eraman zituzten. Eguerdi artean erretiratu zuten istripua eragin zuen garabi ponpa, beste garabi handiago baten laguntzaz.

Denbora gutxian Leitzan gertatzen den bigarrena da atzokoa, hain justu, Lanerako



Istripuko lekuan, datuak jasotzen aritu ziren foruzainak. J. ASTIBIA



Garabi ponparen besoa eroritakoan zauritu ziren bi langileak. J. ASTIBIA

Segurtasuna eta Osasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen zen egunean. Nafarroan aur-

tengo lehen hiruhilekoan gertatu diren 3.420 lan-istripuen zerrendan, bat gehiago.

LEITZA ▶ IKURRINA

## 'Ikurrina gurea. Herriari galdetu' manifestazioa deitu du Larrain H.P.-ak

Bihar, larunbata, 19:00etan plazan hasi eta herria zeharkatuko duen manifestaldiak, alkate eta zinegotzi ohien babesarekin ere jaso du

J. ASTIBIA

Bihar, larunbata, hilak 30, 19:00etan, plazatik aterako da *Ikurrina gurea. Herriari galdetu* lelopean, Larrain Herri Plazafarmak deitu duen manifestaldia.

Deialdia, prentsaurreko agerraldian egin zuen herri plattformak, orain aurreko legealdi desberdinetako alkate eta zinegotzi ohien babesarekin egin ere, Leitzan ikurrinari dagokion historian «unean uneko zuzeneko eragile izan direlako», han argitu zuten eta «herritarren eta udal ordezkarien koherentziari eta tinkotasunari esker, iraun duelako ikurrinak udaletxeko balkoian», baieztatu zuten, «gaur egungo alkateak, otsailean kendu zuen arte», erantsiz.

Erabaki hori «batzar batean eztabaidatu gabe» eta «herria-



Zinegotzi eta alkate ohiek babestuta egin zuten deialdia. HITZA

ri galdetu gabe» hartu izana salatu zuten. Horregatik, deialdiaren zergatiak azaltzerakoan, «larunbatean [bihar], gure ikurra ikurrina dela berretsiko dugu alde batetik; eta bestetik, herriari zer nahi duen galde-tzea beharrezkoa dela aldarrikatuko dugu», zioten.

Leitzan, Nafarroako beste herri batzutan bezala, ikurri-

naren inguruan sortu den egoeraren errudun nagusi «UPN-ren Gobernu», jo zuten, «Ikurraren Legea, nafarrotasunaren eta nahiaren aurka jotzeko» eta «beren helburuak lortzeko» asmatutakoa dela irizten. «Herriaren nahia zantpatuz, 'demokraziaren' izenean diktadura ezartzen» duela, salatu zuten, bestalde.

LEITZA ▶

## Captain Nemoren kontzertua gaur Torrean

J. ASTIBIA

Gaur gauerditik aurrera, Captain Nemo musika taldearen kontzertua izanen da Torre batzordeak antolatuta, izen bereko tabernan bertan, sarrera borondatearen trukekoa jarri dutelarik.

Captain Nemo talde honi buruz disketekek diotenez, «Donostialdeko punk-rock-hardcore doinuen erreferente da». Musika «gogorra» egiten omen du.

Talde hau osatzen duten kideek, bestelako taldetan lan egin ondoren elkartuta, Captain Nemo sortu zuten eta handik laister, atera zuten kalera beren lehen diskoa, 2004. urtean zehazki, *Korrontearen kontra urpekarri bat* izenburuarekin. Bertan, *Aire, Beldurrezko egunak, Bizi edo hil, Gorroto gaituzte, Burua jaten...* moduko hamazazpi kantu eman dituzte argitara.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaurdi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttpa ald.: 948 631888

▶ Txolarre irratia: 943 69 80 38

▶ Karrape irratia: 948 61 09 14

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Etxebeste, J.M. Gernikako

Arbala 3 (Tolosa) 943 651 040

Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona-aizt@tolosaldeko

hitza.info

**Anoeta.** 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzaldea.** 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

**Motorra.** CBR 600 Sport

motorra. 2001. urtekoa,

aseguroarekin. 25.000 Km.

Extrekin. Ondo zaindua.

7.200 euro. 600 90 36 28. [Joxe.](#)

